



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## **Analisi Musikala II**

**USE 2024**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



## MUSIKA ANALISIA II

## ANÁLISIS MUSICAL II

### AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

#### 1.-Obraren iruzkina eta analisisia. (8 puntu)

Obra baten iruzkin analitikoa egin behar duzu, A eta B aukeren artean bat hautatuta. Horretarako, partitura osoak izango dituzu eta musika-lan bakoitza 3 aldiz entzutea gomendatzen da prozedura honi jarraituz:

- Azterketaren hasieran: A aukera eta B aukera entzun, gehien komeni zaizun aukera hautatu ahal izateko.
- 5 minutu igaro ondoren: A aukera eta B aukera berriro entzun, iruzkina egiten hasteko.
- 30 minuturen ostean: A aukera eta B aukera berriro entzutea.

Iruzkin analitikoa egiteko, partituran bertan idatzi ahal izango duzu, eta epaimahaiari emango diozu partitura, egindako probarekin batera.

Entzunaldiaren iruzkin analitikoan, hauek baloratuko dira: koherentzia eta kohesioa, aberastasun lexikoa, hizkuntza-adierazpen egokiaren erabilera, zuzentasun ortografikoa eta irakasgaiaren oinarri buruzko ezagutza.

Horretarako, jarraian adierazten diren alderdiak hartuko dira kontuan, eta bereziki zainduko da berriazko musika-terminologia.

Iruzkin analitikoak lau atal izango ditu, musika-analisiaren arlo batzuei heltzeko:

- a) Obraren testuinguru historikoa, garai bereko beste musika-estilo batzuekin eta beste konpositore batzuekin duen erlazioa [2 puntu]
- b) Organologia: musika-tresnen eta/edo ahotsaren sailkapena [2 puntu]
- c) Obraren egitura: forma musikala, sekzio nagusiak, fraseen eta semifraseen arteko banaketa, haien arteko simetria kontuan hartuta [2 puntu].
- d) Análisi harmonikoa: obraren tonalitatea, izan ditzakeen modulazioak, kadentziak, akorde adierazgarrienak. Akonpainamendu mota eta beste edozein alderdi analitiko garrantzitsu [2 puntu]

#### 2.- Musika-terminoen definizioa: (2 puntu).

Definitu Musika Analiarekin zerikusia duten **4 musika-termino**, proposatutako sei terminoen artean. Proba honen puntuazioa, guztira, **2 puntukoa** izango da. Hautatutako termino bakoitza gehienez ere 0,5 punturekin baloratuko da.

4 termino baino gehiago definitzen badituzu, idazketaren hurrenkeraren arabera lehenengo laurak zuzenduko dira. Definizioek argiak eta laburrak izan behar dute; aski izango da gehienez ere bospasei lerro izatea bakoitzeko. Zuzentasun terminologikoa eta sintaktikoa baloratuko dira.

**Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea**



## MUSIKA ANALISIA II

## ANÁLISIS MUSICAL II

### 1. Obraren iruzkina eta analisisa. (8 puntu)

#### Analisisa egiteko musika-obrak (bat aukeratu):

- **A aukera:** Georg Friedrich Haendel, *Rinaldo*, HWV 7: "Lascia ch'io pianga".
- **B aukera:** Béla Bartók, *Errumaniako Dantzak*, 1

Iruzkina analitikoak lau atal izango ditu, musika-analisiaren arlo batzuei heltzeko:

- a) Obraren testuinguru historikoa, garai bereko beste musika-estilo batzuekin eta beste konpositore batzuekin duen erlazioa [2 puntu]
- b) Organologia: musika-tresnen eta/edo ahotsaren sailkapena [2 puntu]
- c) Obraren egitura: forma musikala, sekzio nagusiak, fraseen eta semifraseen arteko banaketa, haien arteko simetria kontuan hartuta [2 puntu].
- d) Analisi harmonikoa: obraren tonalitatea, izan ditzakeen modulazioak, kadentziak, akorde adierazgarrienak. Akonpainamendu mota eta beste edozein alderdi analitiko garrantzitsu [2 puntu]

### 2. Musika-terminoen definizioa. (2 puntu)

Proposatutako sei musika-terminoen artean lau aukeratu behar dituzu:

- Pikardia-akordea
- *Concerto grosso*
- Sonata-forma
- Organologia
- Dodekafonia
- Nokturnoa

# Lascia ch'io pianga

(Aria from the Opera Rinaldo-HWV7)

Score (02':10")

Georg Friedrich Händel (1685-1759)

Arr. Michel Rondeau

Largo  $\text{♩} = 60$

Soprano

*p* La - scia ch'io pian - ga mia cru - da sor - te

Violin I

*p*

Violin II

*p*

Viola

*p*

Double Bass

*p*

S

5 e che so - spi - ri la li - ber - tà, e che so -

Vln. I

5

Vln. II

Vla.

D.B.

# Händel - Lascia ch'io pianga - Score

2  
10

S

spi - ri, e che so - spi - ri la li - ber -

Vln. I

Vln. II

Vla.

D.B.

14

S

tà! La - scia ch'io pian - ga mia cru - da

Vln. I

Vln. II

Vla.

D.B.

Händel - Lascia ch'io pianga - Score

18

S

18

Vln. I

Vln. II

Vla.

D.B.

sor - te, e che so - spi - ri la li - ber -

22

S

22

Vln. I

Vln. II

Vla.

D.B.

tà!

*f*

*f*

*f*

*f*

# Händel - Lascia ch'io pianga - Score

4  
26

S

Vln. I

Vln. II

Vla.

D.B.

30

S

**Fine** Il duo'lo in - fran - ga que - ste ri -

Vln. I

**Fine**

Vln. II

**Fine**

Vla.

**Fine**

D.B.

**Fine**

Händel - Lascia ch'io pianga - Score

34

S

tor - te. de' miei mar - ti - ri sol per - pie -

Vln. I

Vln. II

Vla.

D.B.

38

S

tà, de' miei mar - ti - ri sol per pie - tà. D.C. al Fine

Vln. I

Vln. II

Vla.

D.B.

D.C. al Fine



# RUMÄNISCHE VOLKSTÄNZE AUS UNGARN.

MAGYARORSZÁGI NÉPI  
ROMÁN TÁNCOK.

JOCURI POPORALE ROMÂNESTI  
DIN UNGARIA.

Aufführungsrecht vorbehalten.  
Droits d'exécution réservés.

1. Der Tanz mit dem Stabe. – *Bot-tânc.* – *Jocul cu bâta.*\*)

Béla Bartók.

Allegro moderato. (♩ = 80.)

Piano. *f*

\*) aus: }  
lelöhelye: } Mezőszabad (Maros-Torda)  
din: }

\*\*\*) Pedalgebrauch wird durch: ————— bezeichnet.  
Pedáljelzés:  
Semmi pedalulul: herabdrücken loslassen  
lenyomni elengedni  
apasá lasá

First system of musical notation. Treble clef, key signature of one sharp (F#). The system contains six measures. Fingerings are indicated by numbers 1-5. A piano (*p*) dynamic marking is present in the fifth measure. A triplet of eighth notes is marked with a '3' in the sixth measure.

Second system of musical notation. Treble clef, key signature of one sharp. The system contains six measures. Fingerings are indicated by numbers 1-5. A *cresc. molto* marking is present in the fourth measure, leading to a fortissimo (*f*) dynamic in the sixth measure. A triplet of eighth notes is marked with a '3' in the second measure.

Third system of musical notation. Treble clef, key signature of one sharp. The system contains six measures. The first measure is marked *sf sopra*. The last measure is marked *sotto*. Fingerings are indicated by numbers 1-5. A triplet of eighth notes is marked with a '3' in the second measure.

Fourth system of musical notation. Treble clef, key signature of one sharp. The system contains six measures. Fingerings are indicated by numbers 1-5. A piano (*p*) dynamic marking is present in the fifth measure. A triplet of eighth notes is marked with a '3' in the sixth measure.

Fifth system of musical notation. Treble clef, key signature of one sharp. The system contains six measures. Fingerings are indicated by numbers 1-5. A *cresc. molto* marking is present in the fourth measure, leading to a fortissimo (*f*) dynamic in the sixth measure. The system concludes with *sf poco allarg. - sopra* in the treble clef and *sotto* in the bass clef. A triplet of eighth notes is marked with a '3' in the second measure.

## MUSIKA ANALISIA. OHIKO DEIALDIA

### Aria

Italierazko hitza da, XVII. mendetik aurrera oso erabilia. Ahots bakarlari batek abesteko konposizio musikal bati erreferentzia egiten dio, normalean orkestraren laguntzarekin eta koruaren laguntzarik gabe, eta opera edo konposizio koral baten parte da (kantata, oratorioa, etab.). *Aria da capo* ere esaten zaio, eta A-B-A egitura hirutarra du.

### Hari-laukotea

Garai klasikoko ganbera-musikako instrumentu-generorik ezagunena da, lau hari-instrumentutarako idatzia: bi biolin, biola bat eta biolontxelo bat. Talde horrentzat interpretatzeko idatzitako obra bat ere izendatzen du terminoak. Haydn-ek generoaren maila igo eta protagonismoa eman zion XVIII. mendean, eta, ondoren, haren forma garatuz, orduetik aurrera izen handiko konpositore askok idatzi dituzten hari-laukoterako obrak, Mozart, Beethoven eta Schubert buru zirela. XXI. mendean, musika-forma oso nabarmena izaten jarraitzen du.

### Garapena

Prozesu bat da, zeinaren bidez musika-idea bat konposizio batean zehar komunikatzen baita. Hasierako materiala eraldatzea eta berrestea adierazten du. Aurkezpen eta konbinazio desberdin ugari aldi berean tratatutako materialzatiengainean egiten da garapena.

Prozesu horretan, ideia nagusi batzuk testuinguru desberdinetan edo modu aeraldatuan errepikatzen dira, eta entzuleak kontzienteki edo inkontzienteki alderatzen ditu ideia horien eraldaketa desberdinak. Tradizioz garapena ahalik eta gehien ustiatzen duen musika-forma sonata-forma da: aurkezpenaren ondoren eta berraurkezpenaren aurretik atal bat du, non aurkezpenaren ataleko materiala garatzen den.

### Nokturnoa

Nokturnoa musika-pieza bat da, ahotsekoa edo instrumentala, melodia gozokoa eta egitura librekoa. Nokturnoak, normalean, pieza lasaiak dira, adierazkorak eta lirikoak, eta, batzuetan, ilun samarrak. Izen horrekin idatzitako lehen nokturnoak John Field-ek osatu zituen. Bera hartzen da nokturno erromantikoaren sortzailatzat, Normalean, mugimendu bakarreko pieza da, piano bakar baterako idatzia. Kantatu daitekeen melodia bereizgarri bat izaten du, akonpainamendu arpegiatuarekin, , gitarra duenaren oso antzekoa. Hala ere, musika mota horren konpositorerik ezagunena Frédéric Chopin izan zen: mota horretako 21 obra idatzi zituen.



## Organologia

Organologia musika-tresnak eta haien sailkapena aztertzen dituen zientzia da. Musika-tresnen historia, kultura bakoitzean erabiltzen diren tresnak, soinu-ekoizpenaren alderdi teknikoak eta musikaren sailkapena aztertzen ditu. Antzinako kultura askok musika-tresnak eta haiek gizartean betetzen zuten rola deskribatzen dituen dokumentazioa utzi zuten. Ondoren, Michael Praetoriusen lanak nabarmentzen dira: *Syntagma Musicum* (1618). Geroago, Hornbostel-ek eta Sachs-ek egindako lanak eta musika-tresnen sailkapena nabarmentzen dira. Gaur egun, zenbait aditu tresna berriak sailkatzen eta aztertzen ari dira.

## Tonalitatea

Tonalitatea edo tonua eskala bateko soinuen artean dagoen erlaziotik abiatuta sortzen da, nota nagusi batekin, tonika (I. maila) izenekoa, protagonista nagusi gisa. Kontzeptu horrek soinu-sentsazio oso bereizgarriak sortzen ditu, ezagutzen dugun mendebaldeko musikaren oinarri direnak. Tonika hori tonalitateari izena ematen dion nota da. Adibidez: tonikak do izena badu, do-ren tonalitatean egongo da. Edozein tonikatatik abiatuta sor daiteke tonalitate bat. Gainerako notak tonu-tarteen eta tonuerdi diatonikoen arabera ordenatzen dira, eskala diatonikoa osatu arte: eskala horretan daude tonalitatea osatzen duten nota guztiak. Eskala diatoniko hori bi kontzepturen bidez egituratzen da: tonalitatea eta modalitatea.